

Oscar Wilde

De profundis



Izenburua: *De profundis*

Egilea: Oscar Wilde

Itzulpena: Aitor Arana

Azalaren eta bildumaren diseinua: Esteban Montorio

Argitaratzea:

Txalaparta argitaletxea e.m.

Nabaz-Bides karrika, 1-2

78. posta-kutxa

31300 Tafalla

NAFARROA

Tel. 948 70 39 34

Faxa 948 70 40 72

txalaparta@txalaparta.com

www.txalaparta.com

Txalapartaren lehenengo

argitaraldia

Tafalla, 2007ko ekaina

Copyright

© Txalapartak argitalpen honena

Fotokonposaketa

Nabarrera argitalpen kudeaketa

Inprimaketa

RGM

ISBN

978-84-8136-493-4

Lege gordailua

BI-1976-07

WILDE, MOZORRORIK GABE

LIBURUA IRAKURRI ONDOREN, bat-batean sortutako galdera hauxe da:

«Ba al du minak tokirik literaturan?».

Eta erantzun nahiarekin batera Varlam Chalamov etorri zait burura. Ez da oso ezaguna gure artean, baina *Kolymako kontuak* izeneko liburuak bete-betean jotzen du minaren gaia. Chalamovek, estalinismoaren garaian, hogeitun urte egin zituen Siberiako Kolyman, urte meategietan lan egitera kondenaturik, eta beste hogeitun urte igaro zitzaizkion urte haietan gertatutakoari buruzko narrazioak taxutzen, atontzen, argitzen... Eroetxean amaitu zuen, baina datu horrek ez gintuzke asaldatu behar. Poeta patua, poeta amaiera, poeta izaera.

«Egia esan, benetako poesia ez da ofizioko zeregina, halabeharraren emaitza baizik. Poetaren odola da, soilik, beharrezkoena, eta, odola poesian barrena

isurtzen ez den bitartean, ez dago poetaz hitz egite-rik, bertso-egileaz baizik».

Minak, benetakoa izanik, benetako zentzua ematen dio poesiari; hobeto esanda, mozorro guztiok kentzen dizkio poesiari eta egiaren lurraldera ekartzen du, minaren erresumara. Gaia gurera ekarririk, Sarrionandiaren kartzelako poemak hartuko nituzke esaten ari naizenaren erakusgarri.

Minik hitzetara ekartzen ez duena ez da poeta, antzezle baizik. Horixe da Chalamovek baieztatzen duena. Hitz gogorak dira, minean minduak eta onduak, noski. Ez baikara halakorik entzutera ohitu. Egiaren bestelako hitza mina da, eta mina izendatzen duen poeta egia izendatzen ari da. Antzeko zerbait esaten du Oscar Wildek liburuan.

«Sufritzea –bitxia iruditzen bazaizu ere– gu existitzeko bidea da, bizi garen kontzientzia edukitzeko modu bakarra da; eta joan diren sufrimenduen oroitzapena ezinbestekoa zaigu, gure nortasun iraunkorraren berme eta erakusgarri gisa».

Wildek, kartzelan dagoelarik, mina eraikitzen du literaturaren erdian, artearen lurralde oparoan.

«Nik orain ikusten dut mina, gizakiak ahal duen sentipen gorena izateagatik, aldi berean dela Arte handi ororen eredu eta proba».

Mina edo atsekabea biluzik doa, noranahi doalarik ere.

«Baina Minaren atzean beti dago Mina. Atseka-beak, Atseginak ez bezala, ez darama mozorrorik. Egia Artean ez da inola ere funtsezko ideiaren eta halabeharrezko izatearen arteko lotura; ez da irudiarren eta itzalaren arteko antza, ezta kristalean islatutako formaren eta formaren beraren artekoa ere; ez da mendiko sargunetik datorren Oihartzuna, Ilargiari Ilargia eta Nartzisori Nartziso erakusten dion haraneko ur putzu zilarreztatua ez den bezala. Egia Artean gauzaren bere buruarekiko batasuna da; kanpoko barrukoaren adierazpide egina; arima haragiztatua; espirituak mugituriko gorputza. Horregatik ez dago Minari aldera dakioken egiarik. Une batzuetan Mina egia bakarra dela iruditzen zait. Beste gauza batzuk ikusmenaren edo janguraren ilusioak izango dira menturaz, bata itsutzeko egina eta betekada sortzeko bestea, baina Minaz munduak eraiki dira, eta ume baten edo izar baten jaiotzan mina dago».

Beste galdera bat egin dezakegu, ordea. Minak, benetan, hobe egiten al du gizakia?

Soljenitsinek baietz zioen; Chalamovek ezetz. Biek ala biek jasan izan zuten haragi eta ariman *gulgula* deitu izan den unibertso suntsitzaile eta itxia.

Kristau tradizioa onartzen dutenek baietz diote, mina Jainkoaren emaitza dela eta onartu beharra dagoela, jainkoaren ontasuna eta grazia zalantzan jartzeke. Kristo hartzen da eredu eta adibidetzat. Kristok, gogoratzen zaigu, ez zuen mina baztertu

nahi izan, ez zuen minik gaintik kendu nahi izan. Mina onartu zuen eta, minaz beste egin zuelako, iritsi zen minaz beste aldera.

Beharrezkoa zaigu Soljenitsinen hitzez oroitzea.

«Sei hamarkada gure herriarentzako eta hiru hamarkada ekialdeko Europako herrialdeentzako: denboraldi horretan gure arimaren heziketa mendealdekoa baino zabalagoa izan da. Bizitza zailak eta hilkortasunaren kargak sendoago eta interesgarriago egin gaituzte, mendebaldean baino».

Ez da, ordea, Chalamov iritzi berekoa.

«Arteak ez du gizakia hobetzen, ez du bera giza-kiago bihurtzen. Artea bizitzeko modua da, ez bizitza ezagutzeko modua».

Minak, Chalamoven ustez, ez gaitu bizitzatik sendatzen, minak ez gaitu bizidunen mailan altxatzen, minak ez gaitu askatzen. Areago, minak gaixotu egiten gaitu, gaiztotu egiten gaitu, gure gorputzari lotzen. Minak gizakiari bere ezaugarriak kentzen dizkio, eta ez dio gizaki izaten uzten.

Ozenki bada ere, esan beharra dago, gizakia animaliarik gaiztoena izan daitekeela, larrienean; otsorik otsoena, bizitzeko aukerak urrituz gero. Joan den, mendeko irudiak ikustea aski da, horretaz jabetzeko.

Nietzschekek minak bera indartsuago egiten zuela idatzi zigun, baina nago gogorrago egiten zuela esan nahian ari zela. Gogorragoa izateak ez du esan nahi indartsuagoa izatea, ezta hobea izatea ere. Katego-

ria fisikoak ezin dira kategoria moralekin nahastu. Nietzscharentzat mina jakinbide eta atseginbide zen. Chalamovek badaki, eskarmentuagatik, kartzelak, presondegiak eta *gulagak* ez dutela gizakia gizakiago egiten, abereago baizik. Horixe bera azaltzen du, Soljenitsini idatzitako gutun batean.

«Kontzentrazioko bizimoduan, gizakiak utzi egin zion gizaki izateari, itxialdia ez dago horretarako pentsatuta. Alderantziz, gizakiok animalia orok jasango ez lukeena jasan zuen, bizirik irauteko».

Erantsenezake, Primo Leviz oroituz, Auschwitzek ere ez duela gizakia hobetzen.

Oscar Wildek sinetsi egin zuen benetan minak bera hobetu egin zuela, minak eta atsekabeak gizakia hobetu egiten zutela sinetsi zuen bezala.

«Biziaren Plazera eta Artearen Plazera ikasteko etorri zinen nigana. Menturaz, askoz *zoragarriagoa* den zerbait zuri irakasteko hautatua naiz. Minaren esanahia eta bere edertasuna».

De Profundis liburuko azken hitzak dira.

Readingeko kartzelan idatzitako gutuna da. Izenburua salmo-liburutik hartutakoa da, Daviden 130etik. «De profundis clamavi ad te Domine», edo eta «Barnenetik Zuri dagizut oiu, Iainkoa», Orixeren euskara ederrez. Oscar Wilderen amak oso maitea zuen eresi hori eta bere poemen edergarri erabili zuen, aipamen soil.

Gutuna lord Alfred Douglasi zuzendua izan zen, «Bosie» adiskideentzat, hura baitzen, adituek diotenez, Wilderen espetxeratzearen errudun zuzena, haren aita Queensberry Markesarekin batera. Bi urte eman zituen kartzelan, egoera oso larrian, garaiko usadioak agintzen zuen bezala. Esku leunak, esku finak, esku zuriak gogortu, zakartu eta belztu egin zitzaizkion idazleari soka zabarrak txikitzen ari zenean, derrigorrezko lanean. Urtebete igaro ondoren Readingeko espetxera zuzendari berria etorri zen eta hari esker Wilderen egoera zertxobait bigunago izan zen. Lorategiaren arduradun eta liburutegiko aleen koadernatzaile izendatu zuten (ofizio onak poeta batentzat).

Kartzelako egoera beti deitoratu zuen Wildek, baita erabat suntsitzaile zela salatu ere irten ondoren idatzitako *Martin zaindariaz* izeneko artikuluan. Martin jagolearen jokaera goraiatzen du, ogi zatia eman baitzion haur bati, eta arautegiaren aurkako ekintza izan, nonbait, eta kalera bidali zuten. Testu horretan irakur daiteke honako esaldi hau, Wilde peto-petoa.

«Gogorkeria, askotan, ezjakintasuna baino ez da».

Wildek, bera ere jipoitua eta zapaldua izan zen, jipoituen eta zapalduen alderdia hartu zuen.

Espetxeak erro sakonak utzi zituen Wilderengan, askatu ezinak. Kartzelan ez zegoenean ere kartzela

etorriko zitzaion gogora, Parisko karraketan barrena, nora ezean, ustez libre, zebilenean.

«Kartzela garaia handik ateratakoan hasi zen».

Espetxean igaro zituen azken hilabeteetan idatzi zuen Oscar Wildek literaturaren historiak ezagutzen duen gutunik luze eta eragingarrietakoa. Kafkak aitari idatzitakoarekin aldera daiteke, biek ala biek indarra eta sentimendua era berean erakusten baitute. Kafka, dena dela, ez zen kartzelan egon, mundu osoa baitzitzaion kartzela, erbeste eta atzerri. Wildek ez zuen gutuna bidaltzeko baimenik lortu, barne arautegiaren kariatz, baina Robert Ross adiskideari idatzitako batean azaltzen du gutunaren zergatia.

«Ez dut nire jokaeraren alde atera nahi: bera azaldu nahi dut, besterik gabe».

Wildek, testu berean, eskuz idatzitakoa makinaz pasatzeko eskatu zion adiskideari. Izenburua ere ipinita zeukan. *Epistola: In carcere et vinculis*. Baina Rossek (Wilde 1900an hil zen Parisen), *De profundis* izenburuz argitaratu zuen lehendabiziko aldiz 1905ean, jatorrizko testuaren erdia zuen edizio batean. Bost aldiz inprimatu zuten urte berean. Max Beerbohm kritikoa eta idazle lagunak hitz hauek idatzi zituen, liburuari buruz: «Ruskin (Wildereren irakasle izana Oxforden) izan ezik, ez da beste idazlerik izan gure artean hitz lauz Wilderen garbitasuna eta lirikotasuna lortu dituenik. Ez dirudi idatzitako zerbait irakurtzen ari garenik, hitzak kantari ari dira».

1909an Rossek British Museoan utzi zuen eskuizkribua, baina baldintzapean, alegia 1960. urtea baino lehen inork ez zezala ikus. Ross 1918an hil zen, eta makinaz jotako kopia Vyvyan Holland Wilderen seme gaztearen esku geratu zen. Kopia hori izan zen 1960 arteko edizioen oinarri. Bitxikerien artean aipa daiteke 1925ean Meyerfeldek argitaratu zuela alemanera itzulita, eta Margarita Nelkenek gaztelaniara itzuli zuela alemaneratik, *La tragedia de mi vida* izenburuaz. Ingelesera itzulita, Estatu Batuetan jatorrizkoa bailitzan argitaratu zuten.

1960an, ordea, testua, Oscar Wildek kartzelaldiak hondatu zizkion eskuez idatzita bezala, irakurri ahal izan zen. 1962an Rupert Hart-Davisek eskuizkribua argitaratu zuen *The Letters* izeneko edizio baten barruan. Ehunka hutsegite omen zituen ordu arte ezagututako testuak. Rossek, Hart-Davisek aipatuta dakigu, mila hitz kendu omen zituela eskuizkributik (zentsuratu hitza ere erabil daiteke), lord Alfred Douglasi eta haren aitari zuzendutakoak, haiek ez mintzearren edo haien haserrea ez areagotzearren.

Liburuaren historiak baditu, ordea, bere azpildurak eta bere ezkutukoak. Wildek, Readingen zegoelarik, Haldane deitzen zen funtzionario baten bisita izan zuen. Holdenek aspalditik ezagutzen zuen Wilde eta, Barne Arazoetako Ministerioan lan egiten zuenez, kartzelei buruzko sail batean, ez zuen eragozpenik izan Wilde ikustera joateko. Berak aitortu-

rik dakigu ziegan sartutakoan idazlea lurrean etzanda zegoela lur jota. Holdenek, orduan, eskua Wilderen sorbaldan ipiniz esan baino gehiago aholku eman zion, aukera zuela bizi zuena literaturagai bihurtzeko, zorigaitzak eman ziola behar zuen gaia. Itxura denez, Holdenek berak egin zituen gestioak, idazleak idazteko trepetak guztiak eduki zitzaizkion, papera eta tinta, luma eta mahai baten antzeko zerbait. Wilde negarrez hasi omen zen Holdenen aurrean eta liburuak eskatu omen zizkion. Hamabost ekarri zizkionten, besteak beste San Agustin, Pascal, Newman, Dante. Mundutarra izan dena etxeratzeko, kanpora begira izan dena barnera begira jartzeko liburuak dira, hain zuzen. Wilde urte batzuk lehenago Estatu Batuetan barrena egindako ibilaldian harriturik geratu zen, kartzela bateko ziega ilun batean preso batek Danteren liburu dantsua irakurtzen zuela ikusirik.

«Harrigarri iruditu zitzaidan, eta ederra ere bai, florentziar baten erbeste-mina kontsolagarri izatea, mende batzuk geroxeago, kartzela moderno bateko biztanlearentzat...».

Dante Wilderentzat lagungarri ez ezik, bide-erakusle izan zen Infernuko bide-matazan. Mandelstamentzat ere Dante bidelagun izan zen haren deserrian.

Kartzelatik irten zenean eta Parisen zegoela, alproja eginda, behin baino gehiagotan gogoratuko zen Danteren liburuaz.

«Kartzelan nire arima aurkitu nuen».

De Profundis gutunak Wilderen aldaketa adierazten duela esan daiteke, alegia testuak mozturro guztiak kendu dizkiola Oscarri. Izan ere, gutuna zerbait barneko eta pribatuenez, ez bereziki argitaratua eta kaleko mozturro festan erakutsia izateko, uste izateko da Wildek egia idatzi nahi izan zuela aipatzen ari garen testu luzean. Baina *egia* hitzarekin kontuz ibili beharra dago, bizitzan egia dena ez baita beti egiazko izaten literaturaren bizitzan edo, nahiago bada, literaturaren gezurrean. Are gehiago Oscar Wilderen barrenean sartzeko bagara, harentzat, izan ere, bizia eta literatura aurkia eta ifrentzua baino ez ziren. Bizitza, noski, literatura bihurtu daiteke, eta literatura bizi daiteke, bizitza izateke. *De Profundis* gutunak, jakina, literatura izanik, idazketaren mugaraino jotzen du, artelanak bezalaxe, eta gaititu ere bai muga oro, beste lurraldeetara igaroz. Genero gisa, gutunari dagokion intimitatea erakusten du eta, horrekin batera, literatur kritika eta teoria biluzten ditu; kristautasunaren aldeko propaganda egiten du eta saiatzeko da etikari buruz eta legegintzari buruz gogoeta egiten.

Esan dezagun, gutxienik, idatzitakoak Oscar Wilderen metamorfosiaren berri ematen digula. Tes-

tuan bertan Wilderen asaldatzeko joera maitasunera jaisten da eta barka eske ari da, damuaren ondoko negarrarekin batera. Testuan melodrama eta tragedia nahasten dira, harrokeriatik apaltasunera doan gurutzetza bidea egiten da. Hori harrigarri zaigu, jakinik zer nolako ustea zuen bere buruaz. Are harrigarriago, ordea, artearen autonomia aldarrikatzen aritu izan denak tratatu moral bat idaztea. Bizitzaren mozorroa maite eta bere burua ere mozorrotu egin duena biluzik aurkitu da ziegan, eta biluztasun horrek bere benetako egoera ekarri dio gogora. Hala uste dut.

Kartzelari, eta kartzelaldiari egotzi behar aldaketa. *Egiaren mozorroak* idatzi zuenak, minaren eraginez, mozorroaren egia idatzi zuela dirudi, minak ez baitu mozorrorik behar den bezala agertzeko, minak berak mozorrotzen ditu ukitzen duen oro.

Minaren kristau eta kristau mindun bilakatu da Wilde. Kristorengana hurbildu da. Kristo, batez ere, artista baita. Kristo eredu baita. Baina esan behar da Wildek komunikatzen duen Kristoren irudia oso berezia dela eta ez dela, soilik, kartzelaldiko denbora astunaren pisua eraman nahia, Biblia irakurtzearen ondorio. Kristo Wilde bera da edo, bestela esanda, Wilde bera da Kristo.

«Egia da Kristoren lekua olerkarien ondoan dagoela. Gizateria sortu zuenean, sorkuntza irudime-

netik zetorkion zuzenean, eta harekin soilik gauza daiteke».

Kristo poeta, poeta oro Kristo. Horretaraino iritsi zen Wilde, bizitzaren gozotasuna itxuragabe das-tatu ondoren. Edozein bizizalaren azpian mistiko bat ezkutatzen omen da. Wildek ez zuen mistikaren bi-dea hartu, damua adieraztearren, bakardadearena baizik. Beste poeta askok bezala (Verlaine, Baudelai-re aipa daitezke), Kristoren errainua ikusi zuen in-guruan, Kristoren eskua munduan, Kristoren hitza isiltasunean.

«Eta, ororen gainetik, Kristo indibidualistarik go-renena da. Apaltasuna, esperientzia guztien onarpen artistiko gisa, adierazpen modu bat baizik ez da. Gi-zonaren arima da Kristok beti bilatzen duena».

Wildereren gorpu-puskak, edo hautsak, Pere La-chaise hilerrian daude, Parisen, beste artista famatu askorenak ondoan dituela, Jim Morrisonenak esate-rako. Hitz hauek irakur daitezke hilobiaren gainean:

«Ez ziren ausartzen nire hitzei erantzuten eta nire solasa ihintza bezala jausten zen haiengana». (Job, XXIX, 22).

Felipe Juaristi

DE PROFUNDIS

EPISTOLA:
IN CARCERE ET VINCULIS
(GUTUNA: PRESONDEGIAN ETA LOTURIK)

H. M. PRESONDEGIA,
Reading

Bosie maitea:

Itxaronaldi luze eta antzu baten ondoren, zuri idaztea erabaki dut, zeure onerako eta neurerako, ez bainuke pentsatu nahi bi urte amaigabe eman ditudala presondegian zugandik lerro bakar bat ere jaso gabe, inolako berririk edo mezurik jaso gabe, mingarria izango zitzaidan hartatik kanpo.

Gure zorigaiztoko adiskidetasun guztiz negargarria, niretzat hondamendi eta jendaurreko zitalkeria moduan amaitu da. Hala ere, behinolako gure adiskidetasunaz ia etengabe oroitzen naiz, eta goibeltasun handia sentitzen dut nire bihotza, lehen maitasunez betea, betirako madarikazioz, saminez eta gaitzespe-
nez beterik dagoela pentsatzean. Eta zeuk ere senti-

tuko duzu ziurrenik, arimaren barrenean, hobe dela niri idaztea, presondegiko bizimoduko bakardadean nagoen honi, neure gutunak nire baimenik gabe argitaratzea baino, edo niri olerkiak eskaintzea, hori ere batere baimenik gabe. Eta hori, nahiz eta munduak ezer ez jakin esaldi nahigabetu edo grinatuez, kontzientzia zimikoez, edo erantzun nahiz justifikazio moduan agertzea gustatzen zaizun axolagabekeriaz.

Zeure bizitzaz eta neureaz idatziko dudan gutun honetan, joanaz eta geroaz, mingostasun bihurturiko goxotasunez, eta agian poz bihurtuko diren mingostasunez idatziko dudan honetan, min emango duten gauza asko egongo dira ziurrenik, zure harrokeria zaurituko duten gauzak. Hala balitz, berrirakur ezazu harrokeria hori hilik geratu arte. Bertan zuzengabe salatzen zaituen zerbait aurkitzen baduzu, ez ahaztu honako hau: eskerrak eman behar dira norbera zuzengabe salatua izatera eraman dezakeen erruagatik. Eta pasarte bakarturen batek begiak malkoz betetzen badizkizu, egizu negar hemen kartzelan egiten dugun bezala, hemen gaua eta eguna negar egiteko eginak baitira. Horixe da salba zaitzakeen bakarra. Baina, Robbieri idatzi nion gutunean zutaz azaldu nuen mespretxuagatik, zure amagana negarra jotzera bazoaz –garai batean egin zenuen bezala–, amak maina eta urruma zaitzan zeure urguilua asetzeko, orduan galduta zaude erremediorik gabe. Zure jokaerarentzako aitzakiarik aurkitzen du-

zun bezain azkar, ehunka aurkituko dituzu berehala, eta lehengo berbera izango zara berriz ere. Oraindik esaten al duzu, Robbieri idatzi zenion erantzunean bezala, nik «zio ezduinak leporatzen dizkizudala»? Ai, ziorik bizitzan inoiz ez zenuen izan eta! Apetak besterik ez zenuen izan. Zio bat helburu intelektuala da. Oraindik argudiatzen al duzu «oso gaztea» zirela gure adiskidetasuna hasi zenean? Zure akatsa ez zen zuk bizitzaz gutxi jakitea, asko jakitea baizik. Aspaldi zeneukan atzean utzita gaztetasunaren egunsentia, bere bilo leunarekin, argi garden eta garbiarekin, egonarri gabeko alaitasun xumearekin. Arintasun biziz, ziztu bizian, Erromantizismotik Errealismora igaro zinen. Erreka-zuloa eta hartan bizi diren gauzak zu liluratzen hasita zeuden. Hori xe izan zen arazoaren sorburua; eta hartan nigana jo zenuen laguntza bila, eta nik, errukiz eta onberatasunez, lagundu nizun mundu honetan zuhurtzia esaten diogun horrekiko batere zuhur jokatu gabe.

Gutun hau hasieratik azkenera irakurri behar duzu, hitz bakoitzak suaren moduan edo zirujauaren bisturiak bezala zulatzen bazaitu ere; haragi delikatua kiskali edo odoletan jartzen duen bisturiak bezala. Gogoan izan jainko-jainkosek ikusten duten eroa guztiz desberdina dela gizakiek ikusten dutenaren ondoan. Espresio-artearen formez ezer jakin gabe, edo pentsamenduaren garapen egoerez; bertso latin-darraren handitasunaz; edo bokal grekoen musika-

rik aberatsenaz; eskultura toskanarraz edo lirika isabeldarraz ezer jakin gabe egon daiteke jakituriarik gozoenaz beterik. Egiatzko eroa, jainko-jainkosek hartaz trufa egin edo hondatzen dutena, bere buruaren berri ez duena da. Horietakoa izan nintzen ni luzaroegi. Horietakoa izan zara zu luzaroegi. Ez zaitetz gehiago izan. Ez beldurtu. Biziorik handiena arinkeria da. Ondo dago ulertzen den guztia. Pentsa ezazu, era berean, hori irakurtzeak atsekabea sortzen badizu, are gehiago sortzen didala niri idazteak. Indar ezezagunak oso onberak izan dira zurekin. Bizitzaren forma arraroak eta tragikoak ikusten utzi dizute, itzalak ispiluan ikusten diren bezala. Medusaren burua, gizonak harri bihurtzen dituen hura, zuri ispiluz soilik ikusteko era eman zaizu. Aske eta lore artean ibili zara. Niri kolorearen eta mugimenduari mundu ederra kendu didate indarrez.

Hasteko esango dizut neure buruari biziki botatzten diodala errua. Gela itzaltsu honetan eserita, preso-jantzi hau jantzirik, desohoraturik eta lur jota nagoela, erantzuki egiten diot neure buruari. Gau ikaragarri hauetan, ikaraldiek sastaturiko hauetan; egun mingarri, luze eta berdintsu hauetan, aurpegi-ratze latzak dauzkat neuretzako. Neure buruari aurpegi-ratzen diot adiskidetasun ez intelektual batek nire bizitza zeharo menderatzen uztea; helburu nagusi edertasuna sortzea eta behatzea ez zuen adiskidetasun batek. Hasiera-hasieratik, tarte handiegia

egon zen gu bion artean. Zu, ikastetxean, nagia izan zinen, eta unibertsitatean okerragoa. Ez zinen kon-
turatzen artista batek, eta bereziki ni naizen bezala-
ko batek, hau da, bere obraren balioa nortasunaren
barne indarraren araberakoa duenak, giro espiritua-
la, lasaitasuna, bakea eta bakardadea behar izan zitza-
keenik bere artearen garapenerako. Zuk nire lanak
miresten zenituen bukatuta ikusten zenituenean;
nire estreinaldien arrakasta ederrez eta haien ondo-
ren izaten ziren jaialdi distiratsuez gozatzen zenuen;
harrotzen zinen, normala denez, halako artista ospe-
tsuaren lagun min izateaz. Baina inoiz ez zenuen
ulertzerik izan zeintzuk ziren artelanak sortzeko bete
beharreko baldintzak. Elkarrekin egon ginen denbo-
ran lerro bat bera ere ez nuela idatzi nik zuri baiezza-
tzea, ez da gehiegikeria erretorikoa, egi-egia baizik,
datu jakinetan oinarritua. Nire bizitza, bai Torguain
edo Goringen, Londresen edo Florentzian edo beste
edonon, nire alboan egon zinen bitartean, guztiz el-
korra eta ez-emankorra izan zen. Eta eten bat edo
beste salbu, sentitzen dut esan beharra, beti zeunden
nire ondoan.

Gogoan dut, esaterako —kasu ugarietako bat ai-
patzearren—, 1893ko irailean hainbat gela alokatu
nituela, inork ni gogaitu gabe lan egiteko asmoare-
kin, hautsia bainuen John Harerekin adostu nuena:
antzezlan bat nion hitzeman, eta lehenbailehen
buka nezan estutzen ninduen. Lehenbiziko astean,

ez zinen azaldu. Liskarra izan genuen, normala de-
nez egia esan, *Salomeren* zure itzulpenaren balio ar-
tistikoa zela eta; horregatik gai horri buruzko gutun
ergelak bidaliz asebate zinen. Aste hartan idatzi egin
nuen, eta bukatu, baita xehetasunik txikienetan ere,
Senar ezin hobearen lehen agerraldia, azkenean an-
tzeztu behar izan zen bezalaxe utziz. Bigarren astean
berriro azaldu zinen, eta hantxe amaitu zen nire
lana. Goizero-goizero, hamaika eta erdietan, St. Ja-
mes's Placera heltzen nintzen, nire etxeko eragozpe-
nak gabe gogoeta egin eta idatzi ahal izateko, etxea
lasaia eta baketsua banuen ere. Baina alferrikako aha-
legina izan zen. Hamabietan zalgurdiz heltzen zinen
zu, eta zigarroak erretzen eta berriketan hasten zinen,
ordu bat eta erdiak arte; eta orduan neuk bazkaltzera
eraman behar zintudan Café Royalera edo Berkeley-
ra. Jan-edana hiru eta erdiak arte luzatzen zen. Ordu
baterako joaten zinen White's Clubera. Tea hartzeko
orduan, berriz etorri eta nire ondoan egoten zinen
afarirako jantzia aldatzeko unea arte. Nirekin jaten
zenuen, bai Saboyn bai Tite Streeten. Normalki, ez
ginen bereizten gauerdia arte, egun gogoangarriak
Willisen etxeko afariaren errematea eskatzen bai-
tzuen. Horixe izan zen nire bizimodua hiru hilabete
haietan, eguna joan eta eguna etorri, bidaian izan zi-
nen lau haietan izan ezik. Haien ondoren, noski, zure
bila joan behar izan nuen Calaisera. Nire izaerako

gizon batentzat, tragikoa eta groteskoa zen egoera hori.

Orain ziurrenik ohartuko zara horretaz. Orain ikusi behar duzu bakarrik egoteko zure ezintasun hori, zure izaera zorrotz hori, besteen denboraz batiere arduratzen ez zen hori, ezta merezi zuten begiruneaz ere; gogoeta espiritual iraunkorrerako zure ezintasuna; adimenaren gauzei dagokienez «Oxfordeko izaera» zuk eskuratzerik ez izatea —ezina baizik ez baitut ikusi nahi horretan—, hau da, zu ideiak liraintasunez erabiltzeko gauza izaterik ez izatea, baizik eta iritzi aski zakarrak edukitzea: konturatuko zara hori guztia, zure nahiak eta interesak artearen aldera baino gehiago bizitzaren aldera makurturik egotearekin batera, kaltegarri izan zela bai zeure heziketaren prozesurako, bai neure arte langintzarako. Zureganako nire adiskidetasuna gazteago diren gizonenarekin alderatzen dudanean, hala nola John Gray eta Pierre Louysenarekin, lotsatu egiten naiz. Nire egiazko bizitza, maila goreneko nire bizitza haiekin eta haien antzekoekin zegoen.

Ez dut oraingoz hitz egingo geure adiskidetasunaren ondorio ikaragarriez. Berorren izaeraz soilik pentsatzen dut, iraun zuen bitartean. Intelektualki zitaldu egin nau. Zugaran ernamuin gisa zeuden izaera artistiko baten bulkadak. Baina nik beranduegi edo goizegi ezagutu zintudan, ez dakit. Zu urrun zeundenean ni ondo nengoen. Arestian aipatu du-

dan urteko abenduaren hasieran zure amak Ingala-
terraz kanpo bidal zintzan lortu nuenean, berehala
batu nituen berriz nire irudimenaren sare nahasi eta
urratuak, nire bizitzaz jabetu nintzen atzera, eta falta
zitzaizkidan *Senar ezin hobearen* hiru agerraldiak bu-
katzeaz gain, erabat bestelako mamia zuten beste bi
idazlan bururatu zitzaizkidan: *Florentziako tragedia*
eta *Prostituta santua*, eta ia gailurreraino burutu ni-
tuen. Horretan ari nintzela, deitu gabe, desegoki,
nire zorionerako galgarriak izango ziren zirkunstan-
tzietan, itzuli egin zinen. Ezinezkoa izan zitzaidan
bukatzeke zeuden bi idazlan haietaz berriro ardu-
ratzea. Ezin izan nintzen inoiz berriro itzuli bizia
eman zien animo egoerara. Orain zuk zeuk olerki
liburu bat argitaratu duzunean, hemen esan dudana
zenbateraino den egia ulertuko duzu. Baina, ulertu
ala ez, hori egia izugarria da gure harremanen erdi-
gunean. Nire ondoan egon zinen bitartean, nire
Artearen erabateko hondamendia izan zinen, eta,
etengabe Artearen eta nire artean tartekatzen utzi
bainizun, neurririk handiengan bete nintzen lotsaz
eta erruz. Zuk ez zenekien ikusten, ez zenekien
ulertzen, ez zenekien antzematen. Ez nuen hori
zugandik espero izateko eskubiderik. Zure intere-
sak bazkarietan eta gutzietan hasten eta amaitzen
ziren. Zure desirak, besterik gabe, josteta ziren plazer
arruntetara edo ez hain arruntetara lerratuak. Zure
izaerak une hartan behar zuena ziren, edo behar

zuela uste zuena. Nire etxean eta nire geletan sartzea debekatu behar nizukeen, berariaz etortzera gonbidatuko zintudan aldietatik kanpo. Ez dut aitzakiarik nire ahulezia zuritzeko. Ahulezia baizik ez baitzen izan. Artearekin ordu erdi soilik ematea, niretzat beti gehiago izan zen zure ondoan ziklo bat egitea baino. Artearekin alderaturik, nire bizitzako inongo denboralditan, benetan ezerk ez zuen garrantzirik izan. Baina artistarengan ahulezia hiltzea da, irudimena geldiarazten duen ahulezia denean.

Neure buruari aurpegiatzen diot, era berean, zuri utzi izana erabateko galera ekonomiko desohoragarrira eramaten. Gogoan dut 1892ko urriaren hasierako goiz bat; zure amarekin eserita nengoen Bracknellgo baso jada horiztatuetan. Orduan ezer gutxi nekien zure egiazko izaeraz. Oxforden egona nintzen zurekin larunbatetik astelehena arte. Zu nire ondoan hamar egun emanda zeunden Cromerren, golfean jokatzeko. Elkarrizketa zugana bideratu zen, eta zure ama zure izaeraz hitz egiten hasi zitzaidan. Zure bi akats nagusiak kontatu zizkidan: harrokeria eta, berak esaten zuen bezala, «dirua zer zen ez jakitea». Oso ondo gogoratzen dut nola barre egin nuen hura entzutean. Ez nekien orduan lehenak kartzelara eramango ninduela, eta bigarrenak porrot ekonomikora. Harrokeria mutil bat apaintzeko lore eder moduko zerbait iruditu zitzaidan; eta oparotasunari dagokionez —zure amak oparotasunaz soilik

hitz egin nahi zuela pentsatu bainuen—, nik neuk, eta nire etxekoek, ez genituen gudan izaten zuhurtasunaren eta aurreztearen bertuteak. Baina gure adiskidetasunak hilabete bat gehiago bete baino lehen, zure amak benetan adierazi nahi zuena ikusten hasi nintzen. Neurrigabe xahutuz bizitzeko zure tema; dirua etengabe eskatzea; zure libertimendu guztiak, ni zurekin egon edo ez, nik ordaintzeko zure nahiak, pixka bat aurrerago, oso zailtasun ekonomiko handiak sortu zizkidan; eta libertinaje hori, niretzat bederen, are aspergarriago egiten zuena zen, zuk nire bizitzan gero eta tematuago parte hartzen zenuen bitartean, dirua ia soilik gastatzen zela janaren, edanaren eta antzeko zereginen plazerak asetzeko. Noizbehinka, plazera da mahai bat edukitzea ardoen eta arrosen pinporta gorriekin, baina zuk gustu onaren eta moderazioaren arauak gainditu egin zenituen. Samurtasunik gabe eskatzen zenuen, eta esker onik gabe jasotzen. Pixkanaka nire kontura eta neurri gabeko orgian bizitzeko eskubidea zenuela pentsatu zenuen, baina ez zeunden horretara ohituta, inondik inora, eta horrela zure irrika gero eta gehiago areagotzen zen. Azkenik, Aljerko kasino batean jokoan dirua galtzen bazenuen, biharamunean niri Londresera telegrafiatzea nahikoa zenuen, bankuko zure kontuan galdutako diru kopurua sar nezan, eta ez zinen berriz ezertarako oroitzen gai hartaz.

Orain esaten badizut, 1892ko udazkenetik pre-sondegian sartu ninduten arte, zurekin eta zuretzat 5.000 libera baino gehiago gastatu nituela esku dirutan, sortutako zorrez gain, kosta ahala kosta eskatzen zenuen bizimodua nolakoa zen ohartuko zara. Ahoberoa naizela uste duzu? Londresko egunero-ko nire gastua zurekin –gosari, bazkari, afari, libertimendu, zalgurdi eta bestelakoengatik– normalean 12 eta 20 libera artekoa izaten zen; asteroko gastua, noski, horren araberakoa izaten zen eta, beraz, 80 eta 130 libera artekoa. Goringen igaro genituen hiru hilabeteetan, nire gastua (etxearen alokairua barne, jakina) 1.340 liberakoa izan zen. Pausoz pauso igaro behar izan dut Porrot Ekonomikoen Hartzailearekin nire bizitzako ohar ekonomiko bakoitza. Ikargarria izan da. «Bizimodua xumea eta pentsamendua goi-goian», garai hartan zeuk ulertuko ez zenukeen ideala zen inondik ere, baina xahubide hura lotsagarria zen biontzat. Gogoan dudan bazkaririk atseginenetako bat Robbiek eta biok Sohoko kafetegi txiki batean egin genuen: zuri ordaintzen nizkizun bazkariak liberatan balio izaten zutena balio izan zuen horrek txelinetan. Robbierekin egindako bazkari hartan nire literatura-elkarrizketetan lehena eta onena izan zena sortu zen. Ideia, izenburua, ekintza, egitura, guztia, hiru franko eta berrogeita hamar zentimoko menu baten aurrean sortu zen. Zurekin egindako azaleko oturuntza haietatik, ezer ez zen

geratzen; gehiegi jan eta edan duenaren inpresioa besterik ez. Eta nik zure gutziak onartzea kaltegarri zen zuretzat. Hori orain dakizu zuk. Horrek sarri eskarrietan zorrotz jokarazi zizun, batzuetan aski adeitasun gabe, betiere oso lotsagabe. Gehiegitan, zu gonbidatzea poz txikia izan zen, ohore urriegia. Ez dut esango esker onaren kortesiazko arauak ahazten zenituenik, halako arauak ez baitatoz bat adiskidetasun estuarekin, baina bai konpainia onean egotearen xarma, elkarrizketa atseginaren plazera, eta grekoek *τερπνὸν χαλόν* esaten zioten hori, eta bizitza apaintzen duten gauza xamur horiek guztiak, bizitza maiagarri eta ezti izatea bideratzen dutenak, hala nola musika; baita lekurik isilenetan edo ez hain harmoniatsuetan ere. Eta harrigarri bazaizu ere norbaitek, ni nagoen egoera ikaragarrian, doilorkeria baten eta beste baten artean bereizi ahal izatea, hala ere zintzo onartu behar dut, zugatik diru guztia botatzeko erokeria hark eta zuri nire dirua alferrik xahutzen uzteak, bioi kalte eginez, nire begietarako nolabaiteko libertinaje arrunta jartzen duela nire Porrot Ekonomikoan, eta horrek bi aldiz lotsarazten nau. Ni beste gauza batzuetarako egina nintzen.

Baina neure buruari gogorren aurpegiratzen diodana, zuk niri etikoki hondatzen utzi izana da. Borondatea izaeraren oinarria da, eta nire borondatea zeharo geratu zen zurearen mendean. Hori horrela esanik barreagarria bada ere, guztiz da egia. Etengabe-

ko mokokaldi haiek, zuretzat, antza, behar fisiko zirenak, eta zure espiritua eta gorputza berdin-berdin hondatzen zituztenak, eta ikusteko zein entzuteko negargarri bihurtzen zintuztenak; zure aitagandik hartu duzun ohitura zatar hori, gutun higuingarriak eta gorrotagarriak idaztera eramaten zaituena; zure sentimenduen bulkadak menderatzen batere ez jakitea, batzuetan umore txar isileko ondoez luzeetan kanporatzen baitituzu, eta beste batzuetan amorru ia epileptikozko erasoaldi bat-batekoetan: horretaz guztiaz, eta idatzi nizkizun gutunetako batek erregu lazgarria egiten zizun —eta zuk gutun hura Savoyen, edo beste edozein hoteletan, utzi zenuen bueltaka, eta horri esker zure aitaren abokatuak epaileari aurkeztu ahal izan zion—, zu zeu berorren funtsaren patetikotasuna ikusteko eta hura kanporatzeko gauza izan bazina; hori guztia, diot, sorburu eta arrazoi izan zen nik zure asmoak, egunetik egunera handituz zihoa-zenak, hain modu gaitzesgarrian onartzeko. Zeharo nekatzen ninduzun. Txikia denak handia dena azpiratzen zuen. Indartsuen gaineko ahulen tirania zen, nire idazlanetako batean, ez dakit non, «tirania iraunkor bakarra» deitzen diodana.

Eta saihestezina zen hura gertatzea. Bizitzako besteekiko harreman orotan *moyen de vivre*ren bat aurkitu beharra dago. Beharrezkoa zen zure aurrean makurtzea edo aurre egitea. Ez zegoen beste aukerarik. Nik, zukanako nire joera handi baina okerra-

gatik; zure jitearen eta izaeraren akatsentzako nuen errukiagatik; nire bihotzaren onberatasunagatik eta nire sorgortasun zeltagatik; modu desegokien eta hitz zantarren kontrako nire artista-gorrotoagatik; orduan ezaugarri nuen arrenkurarik izateko ezintasun harengatik; bizitza bere garraztasunean eta zatarke-rian ikusteko nire higuinagatik, eta begiak benetan beste gauza batzuetan jarrita edukitzeak hura guztia huskeria moduan ikusarazten zidalako –hutsalegia interes urria baino zerbait gehiago merezi izateko–: arrazoi horiengatik guztiengatik, oso xumeak direla balirudi ere, amore ematen nuen beti. Eta horren berehalako ondorioa zen zure nahiak, menderatze-ko zure grinak, zure eskaera zapaltzaileak gero eta neurrigabeagoak izatea. Zure bulkadarik doilorrena, zure irrisik makurrena, zuretzat lege bihurtu ziren eta uneoro besteen bizitza haietara egokitu beharra zegoen; eta legeon arabera sakrifikatu behar zen bes-teen bizitza errukirik batere gabe, hala behar izanez gero. Bazenekien nahikoa zenuela eskandalu egitea beti zure nahia ezartzeko, eta horrela normala da zuk –ia oharkabean, ez dut zalantzarik egin nahi- indarkeria zirtzila areagotzea, ezinezko neurriraino. Azkenean, ez zenekien zein helburu zeneukan edo zer xede zenuen jomuga. Zu nire talentuan, boron-datean eta aberastasunean bortitz barneratuta, neure izate osoa nahi izan zenuen, zure irrika aseezina- ren itsumenean. Eta hartaz jabetu zinen. Nire bizi-

tzako une gorenean eta tragikoki erabakigarrian, nire prozesu ergela hasteko urrats deitoragarriaren aurrekoan, batetik zure aita zegoen niri erasoka, nire klubean utzitako txartel beldurgarrien bidez, eta bestetik zu, era berean gutun desatseginez baliatuz. Zure gutun hura, zeuk bultzata zure izenean zure aitaren aurkako atxilotze agindu barregarria guardiako epaitegira eskatzera joan nintzen egunean jaso nuena, inoiz idatzi dituzun iraingarrienetakoa da, eta hori arrazoirik lotsagarriena dela-eta. Bion artean burua galarazi zenidaten. Arrazoimena nigandik joan zen. Eta beldurra etorri zen hura ordezkatzera. Ez nuen jadanik ikusi, benetan diot, zuengandik libratzeko modurik. Hiltegia doan idiaren moduan, itsu-itsuan, aurrera egin nuen. Oker psikologiko handia egin nuen. Beti uste izan nuen txikikeriatan zuri amore emateak batere garrantzirik ez zuela: une erabakigarria heltzean, nire borondatearen berezko nagusitasuna berriro ezarri ahal izango nuela. Ez zen hala izan. Une hura heldutakoan, borondateak huts egin zidan zeharo. Bizitzan ezer ez da benetan handi edo txiki. Denak du balio bera eta neurri bera. Nire ohitura –hasieran gehienbat nire axolagabekeriaren ondorioa zena–, zuri denean amore emateko nire ohitura, oharkabean heldu zen neure funtsezko zati bat izatera. Ni konturatu gabe, nire izaera animo-egoera beti zoritxarreko bilakatu zen. Horregatik, bere *Saiakeraken* lehen edizioaren

hitzaurre guztiz burutsuan, Paterrek dio «Porrota ohiturak hartzea dela». Hori adierazi zuenean, Oxfordeko motelek pentsatu zuten esaldia, besterik gabe, Aristotelesen *Etika* testu aski erabiliaren inbertsio bat zela, baina barruan egia txundigarria eta ikaragarria du. Nire izaeraren indarrari azpiak jaten utzi nizun, eta niretzat ohitura bat sortzea Porrot ez eze, Hondamen izan zen. Etikoki niretzat are kaltegarriagoa izan zinen artistikoki baino.

Atxilotze agindua zabaldu zen bezain azkar, zure nahia izan zen, noski, dena zuzendu zuena. Londresen egon behar nuen garaian, aholku zuhurrak bilatu eta harrapatuta nengoen harrapagailuaz —ergelaren harrapagailuaz, oraindik ere zure aitak esaten duen moduan— lasai-lasai gogoeta egin behar nuen garaian, Montecarlora zurekin joan nendin nahi izan zenuen; hara hain zuzen, mundu honetako lekurik higuigarrienetakora, zuk gau eta egun jokatu ahal izan zenezan, kasinoa zabalik zegoen denbora gutxian. Ni neu berriz, *bacarata* niretzat batere erakargarria ez denez, kanpoan geratzen nintzen bakarrik. Zure aitak eta zuk jarri ninduzuen egoeraz hitz egi-teari, bost minutuz baizik ez bazen ere, uko egin zenion. Hango nire zeregin bakarra hoteleko zure kontua eta zure galerak ordaintzea zen. Zain neukan proba latza aipatze hutsa gogaikarri zitzaizun. Zinez gehiago interesatu zinen gomendatu ziguten xanpain marka berri batez.

Londresera itzultzean, niretzat benetan onena desio zuten lagunek, behin eta berriz eskatu zidaten ihes egin nezala atzerrira eta ez niezaiola aurre egin inongo prozesu zentzugaberi. Aholku horri beti aurkitu zenizkion arrazoi iraingarriak, eta nik hari kasu egitea koldarkeriatzat zenuen. Zuk geratzera behartu ninduzun, auzitegian epaile aurrean ager nendin, ahal izanez gero, zentzu gabeko zin hauste ergelen bidez. Azkenean, atxilotu egin ninduten, eta zure aita eguneko heroi bihurtu zen. Are gehiago: zure familia orain, begira zer gauza bitxia, Hilezko- rren artean dabil. Izan ere, Klio musa guztien artean ez-serioena bihurtu duen emaitza barregarri hari esker, Historiaren osagarri gotikoa halakoa, zure aita beti biziko da katekesiko literaturako aita on eta garbien artean; zuk leku bat izango duzu Samuel haurraren ondoan, eta ni Malebolgeko lokaztirik sa- konenean nago, Gilles de Retzen eta Sadeko marke- saren artean.

Garbi dago orduan baztertu egin behar zintuz- kedala. Nire bizitzatik bidali behar zintuzkedan, sitsa arropetatik bidaltzen den bezala. Bere drametako zoragarrienean, etxean lehoikume bat hazten zuen noblearen historia kontatzen digu Eskilok, λέοντος ἴνυ izenekoa; maite zuen begi distiratsuz zegokio- lako arretatsu deitzen zionean eta mainatsu eska- tzen ziolako janaria goseak zegoenean: φαιδρωπὸς ποτὶ χεῖρα, σαίνων τε γαστρὸς ἀνάγκαις. Eta, ani-

malia hazi zenean, haren egiazko izaera azalerratu zen, ἦθος τὸ πρόσθε τοχῆων, nagusia txikitu zuen, eta haren etxea eta zeukan guztia. Noble hura bezalakoa izan nintzela sentitzen dut. Baina nire errua ez da zugandik ez bereizi izana, hori gehiegitan egin izana baizik. Gogoratzen dudanez, zukanako adiskidetasuna hiru hilabetean behin hausten nuen aldizka, eta hori egiten nuen bakoitzean, nik iritiz aldatzea lortzen zenuen eta nire ondora itzultzen uztea, erre-gu larrien, telegramen eta gutunen bidez, zure eta nire lagun bitartez, eta antzeko gauzez baliatuz. 1893ko martxoaren bukaera aldean Torquayko nire etxea utzi zenuenean, zu handik irten aurreko gauean egin zenidan iskanbila hain nazkagarria izan zen, zuri inoiz berriz ez hitz egitea erabaki nuen, eta ez uztea inola ere, nire ondoan gehiago egoten. Idatziz eta telegrafoz, Bristoldik erregutu zenidan barka niezazula eta joan nendila zurekin elkartzera. Unibertsitateko zure irakasleetako batek esan zidan, han geratu baitzen nirekin, ez zegoela zu hartzerik esaten eta egiten zenuenaren erantzulezat, eta iritzi bera zutela, ez guztiek, bai, ordea, Magdalen-Collegeko gehienek. Zurekin elkartzea onartu nuen eta, jakina, barkatu egin nizun. Londresera bidean, Savoyra eraman zintzadala erregutu zenidan. Bisita hura benetan zoritxarreko gertatu zitzaidan.

Hiru hilabete geroago, ekainean, Goringen geunden. Oxfordeko zure ezagun batzuk gonbidaturik

etorri ziren larunbatetik astelehenera. Haiek joan ziren goizean halako iskanbila ikaragarria sortu zenuen, hain deitoragarria, banandu beharra genuela esan nizun. Oso ondo gogoratzen dut: *croquet* zelai hartan geunden, belardi ederraren erdian, eta elkarri bizitza sumintzen geniola ikusarazi nizun, zuk zeharo suntsitzen zenuela nirea, eta nabaria zela nik ere ez zintudala zoriontsu egiten; eta gauza burutsu eta filosofiko bakarra behin betiko agurra zela, erabateko bereizketa. Muturturik joan zinen bazkalondoan eta zerbitzariari irainez betetako gutun bat utzi zenion, zu joan eta gero niri emateko aginduarekin. Hiru egun igaro baino lehen, Londrestik telegrafoz erregutzen zenidan barka niezazula, eta itzultzen uzteko. Nik han etxe bat nuen hartua zuri atsegin emateagatik. Zure eskariz, hartan zeuretzako zerbitzariak jarri nituen. Min handia izan nuen beti, zure izaera negargarri haren biktima ikusten baitzintudan. Maite zintudan. Beraz, itzultzeko esan eta barkatu egin nizun. Hiru hilabete geroago, irailean, istilu gehiago izen ziren; horien arrazoia izan zen nik zuri erakustea, *Salome* itzultzen saiatu zinenean, egin zenituen oinarrizko hutsak. Orain nahiko frantses jakingo duzu ulertzeko, zure itzulpena ez zela Oxfordeko ikasle baten mailakoa, ezta islatu nahi zuen idazlanaren mailakoa ere. Argi dago orduan ez zenekiela, eta gai horri buruz idatzi zenizkidan gutun zakarretako batean esaten zenidan ez zeneukala

nirekiko «inolako zor intelektualik». Gogoan dut baieztapen hori irakurtzean, adiskideak izan ginen bitartean, benetan, idatzi zenidan egia bakarra zela pentsatu nuela. Ni bezain jantzia ez zen norbait benetan zuretzat askoz egokiagoa izango zela ikusi nuen. Ez diot hori saminez, pertsonen arteko konpainiaren egitate moduan diot, besterik gabe. Azken buruan, elkarrizketa da harreman guztien lotura, bai ezkontzan bai adiskidetasunean; eta elkarrizketak oinarri komuna behar du, eta oso kultura desberdineko bi izakiren artean oinarri komun posible bakarra mailarik baxuena da. Hutsalkeriak badu xarmarik pentsatzeko eta ekiteko moduan. Horixe da filosofia oso burutsuaren giltzarria, nik neuk paradoxetan eta antzezlanetan adierazia. Baina, sarri, gure izatearen aparrak eta ergelkeriak gogaitzen ninduten; lokatze-tan soilik aurkitzen genuen elkar; eta, nahiz eta oso erakargarria izan, nahiz eta guztiz erakargarria izan zure jardunaren gaia, niretzat guztiz monotonoa izaten bukatu zuen. Sarri askotan, aspertzez hiltzen nintzen, baina jasan egiten nuen, zure *variété* zale-tasuna jasaten nuen bezala, edo jan-edanean dirua ergelki gastatzeko zure mania bezala; edo niretzat erakargarria ez zen zure beste edozein ezaugarri bezala; hau da, onartu beste erremediorik ez zegoen zerbait bezala, hots, zu ezagutzeagatik ordaindu beharra zegoen prezio altuaren zati zen zerbait bezala. Goringetik irten eta gero Dinardera bi aste pasatze-

ra joan nintzenean, biziki haserretu zinen ez zintudalako nirekin eraman, eta, ni abiatu aurretik, horren inguruan iskanbila deitoragarriak sortu zenizkidan Albemarle Hotelean; eta tankera bereko telegrama desatseginak bidali zenizkidan egun batzuk igaro nituen landetxe batera. Gogoan dut esan nitzula zure senideekin aldi batez egoteko betebeharra zenuela uste nuela, uda osoa eman baitzenuen haiengandik urrun. Baina egia osoa esan behar badizut, esango dizut benetan ezin zintudala inola ere nirekin eduki. Ia hamabi aste eman genituen elkarrekin. Atsedena behar nuen eta zure konpainiak sortzen zidan presio ikaragarritik askatu. Beharrezkoa zitzaidan bakarrik egotea denbora pixka batean. Ikuspegi intelektualetik beharrezkoa. Eta horregatik aitortzen dizut, arestian aipatu dudan zure gutunean aukera ederra ikusi nuela, gure artean sortutako adiskidetasun zorigaiztoko bukarazteko, mingostasun handiegirik gabe bukarazteko gainera, hiru hilabete lehena-go Goringen egiten saiatu nintzen bezala, ekaineko goiz eder hartan. Hala ere ikusarazi zidaten —oneski esan behar dut, neure lagunetako bat, zure estualdian laguntza eskatu zenion bat, izan zela— lazki zaurituta sentituko zinela, agian ia umiliatuta, zure idazlana ikasle baten ikasgai gisa itzultzen bazitzaizun; intelektualki gehiegi espero nuela nik zugandik, eta zuk, idazten edo egiten zenuena edozer izanik ere, egiazko mirespena zenidala. Nik ez nuen izan nahi izan

zure hastapen literarioan desanimatuko edo geldia-raziko zintuen lehena. Sobera nekien nik ezein itzulpenek, olerkari batek egina ez bazen behintzat, ezin zituela modu egokian islatu nire lanaren kolorea eta kadentzia. Mirespena gauza zoragarria iruditzen zitzaidan, eta oraindik ere iruditzen zait, arinkeriaz baztertzerik komeni ez dena. Eta horregatik, ez nuen atzera bota itzulpena eta ez zintudan baztertu zu. Hiru hilabete doi geroago, ohi baino liskar amorragarriagoan amaitu ziren istilu batzuen ondoren, zure lagunetako birekin nire geletara astelehen arratsalde batez etorri zinenean, biharamunean literalki ihes egin nuen atzerrira zutaz libre geratzeko. Nire bat-bateko ateraldia justifikatzeko, aitzakia guztiz ergela azaldu nion nire familiari eta, lehenengo trenean nire bila abiatuko ote zinen beldurrez, nire morroiari helbide faltsua utzi nion. Eta gogoan dut, arratsalde hartan, Parisera hegan ninderaman trenean, gogoeta egiten nuela nire bizitzako egoera ezinezko, beldurgarri eta guztiz oker hartaz; neure burua ikusten nuela, mundu osoan gizon ospetsua izanik, Ingalaterratik ihes egitera behartuta neure barnean, alderdi espiritualean zein moralean, ona zen guztia itotzen zuen adiskidetasuna galdu nahian; eta ihes egitera behartzen ninduen gizona, hari ni neu lotu nintzaiona, ez zen lokatz artetik edo erreka-zulotik bizimodu modernora jauzi egindako izaki ikaragarri bat, zu baizik, neure klase eta mailako mutil bat,